

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2014

Joan den maiatzaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SArena ere, non Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100aren jabetza duen.

Txostenak ondorioztatu du bai Osakidetzak bai Osatek, SAk **zuzentasunez bete dutela** 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **lege arautegia**; alabaina, ikusi da Osakidetzak kontratu txiki modura izapidetu dituela botika eta bestelako hornigaien erosketak, 15 eta 82,8 milioi eurorenak, kontratazioaren xedea zatikatuaz. Gainera, obra espediente batean (Basurtoko Unibertsitate Ospitaleko kirurgia bloke bateko bizkortze gunea zaharberritzea) 1,2 milioi euroren aldaketak baimendu dira; horrek, nabarmen aldatu ditu hasierako kontratuaren baldintzak, hasiera batean esleitutako zenbatekoaren % 40 egin baitu.

Bi erakundeen **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; salbuespen da Osakidetzaren kasuan, langileria jakin baten erretiro osagarriengatik geroko ekitaldietan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizatuak ez izatea (gastu hauek ordaindu ahala kontabilizatzen dira eta 2014ko abenduaren 31n kontabilizatzeko dagoen zenbatekoa 110,3 milioi eurorena dela balioetsi da), ez eta garbiketa zerbitzuaren emakidadun diren enpresekiko ordainketa konpromisoak ere, langileen ordainsariei dagokienez, 5,2 milioi euroan.